

## Pribatuen Iragarkiak

### SPRI, SA

IRAGARKIA, «Internerako Sarbidea eta Mugikortasuna WI-FI-rekin» Programa, zeinen bidez WIFI teknologia duten haririk gabeko sareak leku publikoetan instalatzen laguntzeko neurriak ezartzen baitira Interneterako sarbidea errazteari buruzkoa.

19414

## Xedapen Orokorrak

### GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA

#### 4710

AGINDUA, 2007ko uztailaren 12koa, Garraio eta Herri Lan sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko errepide-sareko bide-zoruak neurtzeko arau onartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokio Euskadiko Errepideen Plan Orokorra onartzea, Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren 10.34 artikulua, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a.8 artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Egitamu Nagusia araupezen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen 7.1 artikulua ezartzen dutenari jarraituz; agiri horretan, besteak beste, euskal administrazioek beren errepide-sareetan indarrean jar ditzaketan arau tekniko eta seinalez-tapenekoak ezartzen dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorrean jasotako arau teknikoen barruan Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen errepideetako obretan nahitaez bete beharreko hainbat arau edo jarraibide daude jasota, errepideen koordinazio teknikoaren bermatzeko (maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen 7.1 eta 11.2 artikulua).

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra idaztea eta aldaketa arruntak egin eta onartzea Garraio eta Herri Lan Sailari dagokio; aldaketa horien artean sartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko edozein errepidetako obretan eraikuntza eta materialei buruz jarraitu beharreko arauak eta jarraibide teknikoak

## Anuncios Particulares

### SPRI, S.A.

ANUNCIO relativo al Programa «Acceso a Internet y Movilidad con WI-FI» por el que se establecen medidas de apoyo para la instalación de redes inalámbricas con tecnología WIFI en lugares públicos al objeto de facilitar el acceso a Internet.

19414

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

#### 4710

ORDEN de 12 de julio de 2007, de la Consejera de Transportes y Obras Públicas, por la que se aprueba la norma para el dimensionamiento de firmes de la red de Carreteras del País Vasco.

En virtud de lo dispuesto en el artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, en relación con el artículo 7.a.8 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos y con el artículo 7.1 de la Ley 2/1989, de 30 de mayo, reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco, corresponde a la Administración de la Comunidad Autónoma la aprobación del Plan General de Carreteras del País Vasco, documento que establece las normas técnicas y de señalización que las Administraciones públicas vascas pondrán en vigor en sus redes de carreteras.

Las normas técnicas contenidas en el Plan General de Carreteras del País Vasco comprenden el conjunto de reglas o instrucciones de obligado cumplimiento vigentes para la ejecución de las obras de carreteras de titularidad de las administraciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco, al objeto de asegurar la coordinación técnica de éstas (artículos 7.1 y 11.2 de la Ley 2/1989, de 30 de mayo, reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco).

Corresponde al Departamento de Transportes y Obras Públicas la redacción del Plan General de Carreteras del País Vasco, y la elaboración y aprobación de las modificaciones ordinarias, que son, entre otras, las relativas a normas o instrucciones técnicas sobre construcción y materiales que rigen la ejecución de cualquier

(maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen 8.3 artikulua eta indarrean dagoen plana onartu zuen ekainaren 8ko 250/1999 Dekretuaren 5. artikulua).

Errepideen Plan Orokorren Batzordeak 2007ko maiatzaren 31n egindako bileran planean hainbat aldaketa arrunt egitea erabaki zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko errepide-sareko bide-zoruak neurtzeko arauaren gainean.

Bide-zoru malgu eta erdi-zurrunak neurtzeko arau teknikoa da, eta aurrerantzean Euskal Autonomia Erkidegoko errepide-sare osoan aplikatuko da. Arau tekniko hau Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta Cedexek, Eusko Jaurlaritzaren eta Cedexen arteko lan-kidetzaren esparruaren barruan osatutako jarraipen-batzordearen lanaren emaitza dugu.

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Egitamu Nagusia araupetzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen 14. artikulua ezartzen du Plan horren aldaketa arruntak arlo horretan eskumena duen sailaren titular den sailburuaren agindu bidez onartu beharko direla.

Garraio eta Herri Lan Sailak eskumena du aldaketa horiek egiteko, hala ezartzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuaren 16.1.b) artikulua.

Ondorioz, aipatu aurrekariak kontuan izanik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Egitamu Nagusia araupetzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legeko 14. artikulua aurreikusten duenarekin bat,

XEDATU DUT:

**Lehenengoa.**— Agindu honen eranskin gisa doan Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorren aldaketa arrunta, Euskal Autonomia Erkidegoko errepide-sareko bide-zoruak neurtzekoa, onartzea.

**Bigarrena.**— Euskal Autonomia Erkidegoko errepide-proiektuetarako bide-zoru eta zoladurei buruzko arau teknikoa aldatzea. Arau hori Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen 1. Plan Orokorra (1987-1998 epekoa) onartzen zuen abenduaren 19ko 283/1989 Dekretuaren III. kapituluaren zegoen jasota (EHAA, 42. zk., 1990-02-27), eta oraindik indarrean zegoen Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen 2. Plan Orokorra (1999-2010 epekoa) onartzen zuen ekainaren 8ko 250/1999 Dekretuaren xedapen iragankorrak (EHAA, 118. zk., 1999-06-23) hala ezarri baitzuen.

obra de carreteras en el ámbito del País Vasco (artículo 8.3 de la Ley 2/1989, de 30 de mayo, reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco y artículo 5 del Decreto 250/1999, de 8 de junio, de aprobación del Plan vigente).

La Comisión del Plan General de Carreteras, en la sesión celebrada el 31 de mayo de 2007, acordó realizar una modificación ordinaria del Plan, consistente en la norma para el dimensionamiento de firmes de la Red de Carreteras del País Vasco.

Se trata de una norma técnica sobre dimensionamiento de firmes flexibles y semirrígidos, que será de aplicación en las redes de carreteras de esta Comunidad Autónoma. Esta norma técnica es el resultado del trabajo realizado por la Comisión de seguimiento integrado por el Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales y el Cedex, en el marco de Colaboración entre el Gobierno Vasco y el Cedex.

El artículo 14 de la Ley 2/1989, de 30 de mayo, reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco, establece que las modificaciones ordinarias del citado Plan se aprobarán mediante Orden del Consejero titular del Departamento competente por razón de la materia.

Este órgano es competente para la aprobación de las citadas modificaciones, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 16.1.b) del Decreto 8/2005, de 27 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

En su virtud, vistos los antecedentes mencionados, y de conformidad con las previsiones del artículo 14 de la Ley 2/1989, de 30 de mayo, reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco,

DISPONGO:

**Primera.**— Aprobar la modificación ordinaria del Plan General de Carreteras del País Vasco que se recoge en el anexo de la presente Orden, consistente en la norma para el dimensionamiento de firmes de la Red de Carreteras del País Vasco.

**Segunda.**— Se modifica la Norma Técnica para Proyectos de Carretera de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de Firmes y Pavimentos contenida en el Capítulo III del Decreto 283/1989 de 19 de diciembre, por el que se aprueba el 1.º Plan General de Carreteras del País Vasco para el período 1987-1998 (BOPV n.º 42, de 27 de febrero de 1990), que permanecía vigente en virtud de lo establecido en la Disposición transitoria del Decreto 250/1999, de 8 de junio, de aprobación del 2.º Plan General de Carreteras del País Vasco, correspondiente al período 1999-2010 (BOPV n.º 118, de 23 de junio de 1999).

## AZKEN XEDAPENAK

**Lebenengoa.**— Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

**Bigarrena.**— Agindu hau behin betikoa da administrazio bidean. Bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasi eta bi hilabeteko epearen barruan.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko uztailaren 12a.

Garraio eta Herri Lan sailburua,  
NURIA LÓPEZ DE GUEREÑU ANSOLA.

Ale Gehigarri bereizian argitaratzen da aipaturiko eranskina

## EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

4711

EBAZPENA, 2007ko uztailaren 24koa, Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena. Honen bidez agindua ematen da Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailaren Arautegia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko.

Unibertsitateak bere araubide propioa dauka erakunde antolatzeko, bere interesen defentsan aritzeko baliogarria, Konstituzioak 27.10. artikuluan onartzen duen unibertsitateen autonomiatik eratorria. Araubide horri atxikita dago bere arauak egiteko erakundeak daukan ahalmena. Ahalmen horrez baliatuta, Unibertsitateak bere Estatutuak dauka, erakundearen antolaketa-aren ezaugarri berezi diren arlo eta organoak erregulatzeko dituzten oinarrizko arauak.

Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuetako 199. artikulua dioenez, sailek arautegi bat izango dute euren gobernurako. Arautegia Saileko Kontseiluak egingo du, Gobernu Kontseiluak emandako oinarrizko arautegiari jarriki. Bestalde, Sailen Oinarrizko Arautegiko 4.2. artikulua idazkari nagusiari eskuordetzen dio arautegiak onesteko eskumena, baldin eta txosten guz-

## DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**— La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

**Segunda.**— La presente Orden es definitiva en vía administrativa. Contra la misma cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de dicha jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, dentro del plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de julio de 2007.

La Consejera de Transportes y Obras Públicas,  
NURIA LÓPEZ DE GUEREÑU ANSOLA.

En Suplemento aparte se publica el anexo que se cita

## UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

4711

RESOLUCIÓN de 24 de julio de 2007, del Secretario General de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se ordena publicar en el Boletín Oficial del País Vasco el Reglamento del Departamento de Lingüística y Estudios Vascos.

La Universidad cuenta con un régimen propio de autoorganización, poder ejercitable para la defensa de sus intereses propios, derivado del reconocimiento que la Constitución en su artículo 27.10 hace de la autonomía de las Universidades. Elemento sustancial de este régimen es la capacidad de autonormación. En ejercicio de esta capacidad la Universidad se dota de sus Estatutos, normas básicas que regulan por sí mismos aquellas materias y órganos que estructuran los rasgos esenciales de la organización universitaria.

El artículo 199 de los Estatutos de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea dispone que los Departamentos se regirán por un Reglamento elaborado por el Consejo de Departamento, siguiendo las directrices del Reglamento Marco de Departamentos, y aprobado por el Consejo de Gobierno. A su vez, el artículo 4.2 del Reglamento Marco de Departamentos